



2.8 KOSTUEN EGITURA

Enpresa batek ondo funtzionatu dezan, ezinbestekoak dira kostuen ezagutza izatea eta kostuak ondo antolatzea. Izan ere, eskainitako zerbitzu edo ondasun baten atzean beti kostuak egoten dira, eta enpresak irabaziak izan ditzan eta zerbitzuak edota ondasunak saltzen jarraitu dezan, diru-sarrerak kostuak baino altuagoak izan behar dira. Bi motatako kostuak daude: kostu finkoak eta kostu aldakorrak, eta irabaziak kalkulatzeko bien arteko batura hartzen da kontutan.

Kostu finkoak, ekoizitako kantitatea aldatuta ere aldatzen ez diren kostuak dira. Ekoizitako kantitatea edozein dela ere balioa aldatzen ez duten baliabideak erabiltzean sortzen dira. Adibidez, kostu finkoak dira lokal baten alokairuak eta ekoizpen-instalazioen mantentze-gastuak. Gure kasuan, hainbat kostu finko egongo dira. Batetik, zuhaitz-etxeak egiteko bankuari eskatu behar diogun mailegua. Bestetik, langileen soldata finkoa izango da, bai segurtasunarengarik eta baita konfiantza transmititzeko ere. Azkenik, zerbitzua banatuko dugun bulegoaren alokairua ere kostu finkoa izango da.

Kostu aldakorrak, ekoizitako kantitatearekiko proportzionalak dira, hau da, enpresaren ekoizpenaren arabera aldatuz doazen kostuak dira. Esaterako, lehengaiak eta energia-kontsumoa kostu aldakorrak dira. Guk eskaini behar dugun zerbitzuaren kasuan, kostu aldakor ugari egongo dira. Batetik, erabilitako argindarraren eta uraren kontsumoa, nahiz-eta argindarra eguzki-plaketatik etorriko den. Bestetik, produktuak transportatzeko erabiliko dugun autoa.